


KOSTUAK

Gure enpresak kostu finkoak besterik ez ditu. Irabaziak berriz aldakorrak izango dira.

Kostu finkoak:

- Publizitatea: Publizitatea influenzerrei egiteko eskatuko diegu, hortaz, lune arduratuko da eta 500€ jarriko ditugu hori egiteko. Euskal telebistan ere iragarki bat jarriko dugu, eta honek 200€ balio du.
- Play Store: Aplikazioa Play Storen igotzeko 25\$ ordaindu beharko ditugu. Kostu hau behin behinekoa izango da, hasieran bakarrik ordaindu beharko dugulako, aplikazioa merkatuan egonda ez dugu gehiago ordaindu beharko.
- Patentatu: Aplikazioa patentatu egingo dugu, 267€ ordainduko ditugu horretarako. Play Storen aplikazioa igotzeko bezala, asmakizun bat behin patentatzearekin nahikoa da, beraz kostu hau hasieran bakarrik izango dugu.



Hortaz aparte, lehen esan dugun bezala 200€ ordainduko ditugu eitb iragarkia jartzeko. Naiararen lehengusuak Euskal telebistan egiten du lan eta hori aprobetxatuz, berari laguntza eskatuko diogu eta beherapentxo bat egingo digu. Bertan, iragarki labur baten moduan, gure aplikazioaren berri emango dugu, bigarren eskuko arropa eta arropa

aholkuak eskeintzen ditugula esanez. Horrela jende gehiagok gure proiektuaren berri edukiko du.

Irabaziak:

Hainbat irabazi ere edukiko ditugu, alde batetik aplikazioan bertan iragarkiak egongo dira eta horri esker dirua irabaziko dugu, baina kentzeko aukera ere egongo da 3.99€ ordaindu beharko dute. Gutxi gorabehera 7.699,5€ irabaziko ditugu lehenengo hilabetean. Baina horri kostuak kendu beharko dizkiogu. Kostuak kenduta 6.710 € irabaziko genituzke. Bigarren hilabetean, berriz, patentatua eta Play Storen igotzearen kostua ez dugu ordaindu beharko, horregatik irabaziak handiagoak izango dira. 6.999,5€ irabaziko ditugu bigarren hilabetean.